


EUSKAL HERRIKO UDAL AGIRIAK ERDI AROAN (XII-XV. MENDEETAN)

Aguraingo historia ikertzeko argibide iturriak: azterlanak eta udal artxiboko dokumentazio argitaratua



Historiako Gradua 2014/2015

Zuzendaria: José Ángel Lema Pueyo

Egilea: Klara Gorosabel Zaldibia

Erdi Aro, Aro Berri eta Amerikaren Historia Saila - Erdi Aroko jakintza arloa

AURKIBIDEA

SARRERA.....	3 orr.
-LANAREN LABURPENA.....	3 orr.
- HELBURUAK.....	4 orr.
1.-AZTERLAN HISTORIKOAK	5 orr.
2.- ARGITALPEN EKIMENAK.....	9 orr.
- 2.1.- EUSKO IKASKUNTZAREN <i>COLECCIÓN DE FUENTES</i> <i>DOCUMENTALES MEDIEVALES DEL PAÍS VASCO</i>	9 orr.
* Bilakaera orokorra	9 orr.
* Araba	14 orr.
* Agurain	16 orr.
-2.2.- BESTE EKIMEN BATZUK.....	18 orr.
3.- DATUEN SISTEMATIZAZIOA.....	19 orr.
-3.1.- AGIRI KOPURU OROKORRA ETA BEREN BANAKETA KRONOLOGIKOA.....	19 orr.
-3.2.- AGIRI MOTAK EGILEAREN ARABERA.....	21 orr.
-3.3.- ISLATZEN DIREN GAI HISTORIKOAK.....	24 orr.
ONDORIOAK.....	29 orr.
BIBLIOGRAFIA.....	30 orr.

SARRERA

LANAREN LABURPENA

Lan honetan Aguraingo Udal Artxibategiko XII eta XV. mende bitarteko agirien azterketa bat burutuko da. Honetarako hiru ardatz marraztuko ditugu: lehenengoan Aguraingo Erdi Aroko historia berregiteko plazaratu diren azterlanak ezagutuko ditugu. Zorionez, agiri historikoen zainketei eta mantenuari garrantzi handia eman zaion udal artxibategi baten aurrean aurkitzen gara eta honek artxibategi oso aberats bihurtu du. Arrazoi hau dela eta, XVIII. mendean erdialderako jada lehen azterketa historikoak eta argitalpen ekimenak burutzen hasiko dira garaiko historialariak. Guk ere, gure ekarpen txiki bat egin dugu: azterlan hauek elkartzuz Aguraingo XII. mendetik XV. mendera arteko historia laburbildu dugu.

Bigarrenik jarraituko dugun haria agirien argitalpen ekimen desberdinen analisiarena izango da. Proiektu hauek ikertzaileen lana erraztu egiten dute eta honek lan historikoen argitalpen ugariagoak bultzatzen ditu. Baina Euskal Herriko lurralde desberdinetan ekimen hauek ez dute pisu berdina eduki zoritxarrez, hutsune handiak daude eta hauetako bat Arabako probintzia da. Hau etorkizunean baldintzatzaile garrantzitsu bilakatu ahal da, gehien aztertu diren lekuak ikerketak burutzeko errazagoak izango baitira. Duda barik, Eusko Ikaskuntzaren *Colección de Fuentes Documentales Medievales del País Vasco* ekimena oso garrantzitsua izan da, baina beste bilduma asko ere burutu dira urteotan eta hauek ere aztertuko ditugu.

Hirugarren ardatza, Aguraingo Udal Artxiboko Erdi Aroko agirien analisia izango da. Orotara 475 agirik osatzen dute berau. Agirien kronologia, emalea eta gaia aztertuko ditugu hurrenez hurren. Beraz, hiru sailez osaturiko lana da.

Metodologiari dagokionean, datu bilketa oinarritu dugu gehienbat. Datu hauek taula zein grafikotan adieraziko dira, beren azterketa zein diagnostikoa errazteko asmoz. Azkenik gogoetaren ondorioak azalduko dira. Datuak biltzeko aukeratutako irizpideak subjektiboak dira kasu askotan, beste modu batera planteatuko lituzke beste ikertzaile batek. Gainera, klasifikazio ahalik eta sinpleenak egiten saiatu gara, ñabardurak alde batera utziz. Honek datuen interpretazioa nabarmen erraztu digu.

Azkenik eta txostenari amaiera emateko lanari buruzko azken gogoetak eta ondorioak adieraziko ditugu.

HELBURUAK

Lehenik eta behin, ikasle guztiok planteatzen dugun lehen helburua Gradu Amaierako Lana egitea da. Orain arte, lau urte hauetan zehar, egin ditugun lan luze gehienak talde lanak izan dira eta gainera irakasleak ezarritako arauen barruan egon dira. Ondorioz, gradua amaitzeko bakarkako lan luze bat idaztea eta aurkeztea oso aberasgarria izan da. Azken finean, arazoak planteatu, bibliografia bildu, irakurri eta lortutako datuak sistematizatu eta interpretatzea lan akademikoaren ezinbesteko eragiketak dira.

Hau esan ostean, helburu zehatzagoz arituko gara. Alde batetik, Aguraingo historian interesa duen edonork sarrera modura erabili dezake lan hau. Aguraingo historia gaintetik laburbiltzeaz gain, gai honi buruz idatzi diren lanen aipamena ere egiten dugu. Ondorioz, laburpenetik ideia nagusiak jaso ditzake irakurleak eta ondoren bibliografiarekin bertan sakontzeko informazioa eskuragarri non duen jakin dezake. Bestetik, beste artxibategi bateko agirien ezaugarriak ezagutu nahi dituenarentzat ere erabilgarri suerta dakioke idatzi hau. Batez ere, agiri gutxi mantentzen diren artxibo baten azterketa egiten ari den batek, agiri horiek bere testuinguruan kokatzeko baliagarria izango zela iruditzen zaigu. Beraz, helburuetako bat, ikertzaile zein historiarako interesa duen edonori, bere galdera zein jakin-minak asetzeko erabilgarri den lan bat egitea izango da.

Gainera, udal desberdinen arteko hartu-emanak ezagutzeko baliagarria suerta dakiguke lan hau. Oraindik, Gasteiz bezalako hiri garrantzitsuetako agiri andana falta da ikertzeko, ondorioz beronek Agurainekin edukitako kontaktuak ez ditugu ondo ezagutzen. Ondorioz, etorkizunean hurrengo pausua emateko abagunea baldin badago, idatzi hau erabilgarria izan daiteke.

Euskadi zein estatu mailako beste artxibategietan ere Aguraini buruzko zenbait agiri gordetzen dira. Hauek, aztertu ditugun udal agiriek ematen diguten informazioa sakontzeko eta borobiltzeko aukera ematen digute. Probintziaren, eta Lurralde Historikoaren artxiiboak oraindik guztiz ikertzeke daude. Simancas eta Valladolideko Errege Entzundegiaren Artxiboaren moduko gune garrantzitsuetan ere aurki ditzakegu Agurainekin erlazioa duten

agiriak. Ondorioz, oraindik lan asko dago egiteko eta gure lana lehenengo urratsa izan daiteke.

1.-AZTERLAN HISTORIKOAK

Atal honetan Aguraingo historiari buruz eginiko ikerketen laburpen bat gauzatuko dugu. Lehenengo parada Joaquin José de Landázuri y Romarateren *Obras Históricas sobre la Provincia de Álava*¹ lanean egingo dugu. XVIII. mendearen erdian argitaratutako lan honetan, Arabako probintziako historia biltzen saiatzen da idazlea. Landázurik ordura artea aztertu gabe zeuden agiriak argitaratu zituen lan honetan, zuzenean artxiboetara jo zuen hauen bila eta besteak beste Aguraingo Udal Artxiboko hainbat dokumentu erabili zituen lana oinarritzeko. Beraz, Arabako historia aztertu zuen aitzindarietako bat dugu Joaquin de Landázuri jauna.

1905ean argitaratu zuen Fortunato Grandesez *Apuntes Históricos de Salvatierra*² liburua. Landázurik baino lurralde txikiagoan oinarritzen du bere lana, Agurainera mugatzen da, baina lerro kronologiko handiago batetan ere burutzen du bere ikerketa; historiaurreko aztarnategietan ateratako ikerketetatik XX. mendearen lehenengo urtetako gertaeretara luzatzen du bere lana. Bestetik, Gonzalo Martínez Díezen *Álava Medieval*³ lana ere azpimarratu nahiko nuke. Berak, gehienbat, Arabako Erdi Aroko iraganaren historia politikoa eta instituzionala landu zuen eta duda barik lan hau ezinbestekoa da Aguraingo historian bere testuinguruan kokatzeko.

Francisco Javier Goicolea Julián ikerlaria ere aipatu nahiko nuke atal honetan. Agurain eta bere inguruko ikerketa ugari burutzeaz gain, Erdi Aroko agirien argitalpen egitasmoetan ere lan handia egin du.

Aurrekari guzti hauekin Ernesto Pastor Díaz de Garayok 1986an *Salvatierra y la Llanada Oriental Alavesa*⁴ (Siglos XIII-XV) liburua argitaratu zuen, bere lizentziatura oroitidazkia agertzen zuena. Gure lana, Goicolearen lanean eta liburu honetan oinarritzen

¹ LANDÁZURI Y ROMARATE, J.J., *Obras Históricas sobre la Provincia de Álava*, Diputación Foral de Alava-Consejo de Cultura, Tomo I-II-III-IV, 1976, Gasteiz.

² GRANDES, F., *Apuntes Históricos de Salvatierra*, Arabako Foru Aldundia, Gasteiz, 1982 .

³ MARTÍNEZ DIEZ, G., *Alava Medieval*, Tomo 2, Diputación Foral de Alava, Gasteiz, 1974.

⁴ PASTOR DÍAZ DE GARAYO, E., *Salvatierra y la Llanada Oriental alavesa (Siglos XIII-XV)*, Azterlanak-Investigaciones de hoy, Arabako Foru Aldundia, Gasteiz, 1986.

da, beraz, aipamenetik haratago joango gara oraingoan eta horrela laburki, Aguraingo Erdi Aroko historiaz mintzatuko gara. Laburpen honetan Jon Andoni Fernandez de Larrearen *La llanada oriental en la Baja Edad Media: villa frontera y linajes*⁵ laneko aipu batzuk ere gehituko ditut. Azken bi autore hauek, aurrekoek ez bezala, beste irizpide historiografikoei jarraitzen diete,hots, gizarteari eta ekonomiari ematen diete lehentasuna.

Hiru mendeetako historia laburtzeko periodizaio bat proposatuko da. Lehenik hazkunde garai bati buruz mintzatuko gara, bertan 1256. urteko foru erregimenak garrantzi handia edukiko du. Ondoren XIV. mendeko krisiak Agurainen eragindako aldaketak aztertuko dira eta azkenik krisiaren amaiera eta berreskurapena izango dut hizpide.

1025eko iturriak kontsultatuz, badirudi 600 metroko altueran kokatzen diren herri kopuru altua zegoela garaiotan, honek erakusten digu, Lautadako lur emankorrenak erabili beharrean periferiako lur ez hain emankorretan kokatutako herri ugari zegoela eta hau presio demografiko handi baten isla da. 1257. urteko datuetan goranzko joera honek bere horretan jarraitzen zuela ikus daiteke, sortaldeko lautadan 13 herrixka gehiago eratu ziren eta gainontzeko herrixkak hazten jarraitzen zuten. Hazkunde honek nekazaritza lur gehiago sortzea ekarri zuen, honetarako abeltzaintzan erabiltzen ziren lurak eta basoak luberritu ziren.

Gauzak horrela, hazkunde honen testuinguruan, 1256. urtean Alfonso X.ak forua eman zion eta bide batez izena aldatu, honela Agurain Salvatierra bihurtuko zen. Forua lortzearen zergatietako bat, beste behin ere, hazkunde ekonomiko eta demografikoa dugu, honek produkzioa igoera bat eta lan indar soberakin bat sortuko du eta honek artisautza eta merkataritza bezalako jarduerak ahalbidetuko eta indartuko ditu. Gainera Nafarroako erresumaren mugarekiko gertutasunak eta barnealdea eta Kantauri isurialdea batzen zituen komertzio bidean kokatuta egoteak gure estrategiko bihurtuko du Gaztelako Erresumarentzat.

Aguraingo herriak estatus juridiko pribilegiatua lortu izanak sortaldeko Lautadan aldaketak eragin zituen. Alde batetik, eskualdeko noblezia Agurainera lekualdatuko da.

⁵ FERNANDEZ DE LARREA ROJAS, J. A., “La llanada oriental en la Baja Edad Media: villa frontera y linajes”, in PASTOR DÍAZ DE GARAYO, E., (Koor) *Sortaldeko lautada historian zehar: gaurko tresnez baliatuz, joandako denborak argitu*, Arabako Foru Aldundia, Gasteiz, 2003, 53-60 orr.

Bestetik nekazari askok ere berdina egin nahiko dute, landa inguruko bizi baldintzak gogorragoak baitziren, baina honek jaunen haserrea eragin zuen eta honen aurrean erregeak, Alfontso X.ak, norgehiagokari bukaera eman zion.

Hurrengo urteetan Agurain hiribilduak hazkunde geografiko bat edukiko du; 1270ean erregeak Ulako monasterioa eta bere lurak eman zizkion, 1289an Ocariz eta Muniain herrixkak batuko zitzaizkion, hurrengo urtean herrixkak eta lurak erosi zituzten, eta horrela Zuazo eta Arbizua herrixkak bereganatu zituzten. Horrela 1332. urtean Agurainek 30 herrixka biltzen zituen bere udalerrian; baina indartze hau ez zuen begi onez ikusi nobleziak eta liskarra sortu zen. Berrero ere erregea bakea jartzera etorriko zen eta Agurain hiribilduaren muga geografikoak murriztea erabakiko. Erabaki honek ez zuen Agurain kikildu eta hurrengo urteetan merkataritza pribilegioak lortzen saiatuko zen.

Aurreko lerroetan aipatu dugun moduan, krisi feudalaren lehen zantzuak hazkunde garai honetan beha daitezke. Hala ere, Agurainen kasuan hazkunde demografikoak jarraitu egin zuen; horren adibide dira XIV. mendearen bigarren laurdenean sortutako bi herrixka berri: Elburgo eta Alegria Dulantzi.

Hala ere, garai berdinean ezegonkortze ekonomikoaren lehen berriak ere iristen zaizkigu honen adibide dira lehen despopulatuak eta herri abandonatuak. Nobleziaren jokatzeko moduan ere ikus daitezke krisiaren lehen sintomak. Goi nobleziak eta Elizako goi sektoreek lur bakan batzuk galdu edo saldu behar izango zituzten beren ekonomia lehen bezain ondo ez zihoalako. Egoera honetatik Agurain udalerrira irabazle aterako zen, goi mailako familia hauei lurak erosteko abagunea edukiko baitzuen. Gainera urte hauetan bandadajeak gora egingo du nabarmen muga inguruan, bandadaje honen atzean behe nobleziako taldeak leudeke, euren irabaziak behera egin dute eta beraz diru iturri berriak behar dituzte.

Europa mendebaldean eta Mediterraneo inguruan krisiaren aldi bortitza 1347 eta 1350 bitartean izan zen. Gosete handien eta izurrien garaia izango zen. Sortaldeko Lautadan horrelako gertaerez hitz egiten diguten dokumentaziorik ez da mantendu baina Alfontso XI erregeari inguruko erreinuetatik hornitzeko erregua egin izanak hornikuntza arazoak zituztela erakusten digu. Beraz, nahiz dokumentu garaiko kalamitateak zeharkako modu

batean agertu, badakigu krisi demografiko eta ekonomikoa eman zela aztergai dugun zonaldean.

Herrixken abandonuari dagokionez, Agurain inguruan 9 despoblatu zeudela aipatzen garaiko dokumentazioan, gehienak hazkundearen azkeneko fasean sortuak ziren eta batzuk altuera handian kokatzen zirenez pentsa daiteke lehenbizi uzten diren lurrak produkzioarako desegokienak direla. Krisiaren beste ondorioetako bat baso eta mendi komunalen ustiapenaren inguruan egon ziren liskarrak dira.

Nahiko goiz, XIV. mendearen bukaeran eta XV. mendearen hasieran luberritzeen lehen zantzuak agertzen zaizkigu. Hau harrigarria da, horrelako krisi gogor batean. Adituek erantzuna eman nahian bi teoria proposatzen dituzte; batetik Gipuzkoa gariz hornitza dutela helburu diote batzuek, izan ere, Gipuzkoaren orografia desegokia zela medio gari defizita eduki du historian zehar eta hau Arabako produkzioarekin orekatu nahi izan du. Beste batzuen ustetan, krisiaren barnean, errekupezio faseak biziko zituzten eta egoera honetan luberritzen hasiko lirateke nekazariak. Baina periodikoki, uzta txar edo izurriteen ondorioz, bertan behera utziko ziren proiektu hauek. Bigarren eta hirugarren sektoreei dagokionean, berauek Agurainen bakarrik gauzatuko zirela dirudi. Badirudi artisau asko konponketetara dedikatuko ziren eta produkzio esparrua oso murrizta izango zen. Merkatariek ere ibilbide motzetan jardungo zuten, nahiz eta Nafarroko eta Aragoiko erreinuetan ere jardun.

Hazkunde garaiaren amaieran jada noblezia krisiak kolpatua bazegoen, krisiaren muinean oraindik eta gehiago. Behe noblezia, hasiera batean bandolerismoan oinarritu zena, ia desagertua dago garai honetan. Badirudi, krisi demografikoak eragin handia izan zuela sektore sozial honengan. Behintzat XIV amaiera arte ez dago nobleziaren baldolerismoari buruzko zantzurik. Nobleziak, diru sarrerak gutxitzearen aurrean, biolentziara joko du. Gainera erregeen aginduetara jarriko dira asko eta erregeak ordainean feudoak edo soldata militarrek emango dizkie. Gauzak horrela, esan daiteke, goi noblezia indartuta aterako dela krisi honetatik eta behe noblezia berriz kaltetuago, behe nobleziako familia ugari desagertzeko arriskuan egongo dira garai honetan. Goi nobleziaren indartzea

begi txarrez ikusia izan zen hiriengandik eta nekazariengandik, hauek diru sarrerak handitu nahian zerga gogorak ezarri baizizkien.

XV. mendea berreskurapenaren mendea izan zen. Hau idatzietan argi ikus daiteke, luberritzeak aipatzen baitira. Feudalismoak sistema bezala krisia gaindituko du, baina zeharo eraldatuta irtengo da bertatik, ezaugarri desberdinak izango ditu hemendik aurrera.

2.- ARGITALPEN EKIMENAK

2.1.- EUSKO IKASKUNTZAREN *COLECCIÓN DE FUENTES DOCUMENTALES MEDIEVALES DEL PAÍS VASCO*

Eusko Ikaskuntzaren *Colección de Fuentes Documentales* bildumak inflexio puntu bat markatu du, historia berregiteko tresna oso garrantzitsu bilakatu da. Beraz, proiektu honen nondik norakoak ezagutzeko saiakera egingo dugu hurrengo lerroetan.

Bilaketa orokorra

XX. mendetik aurrera, euskal agiri historikoen argitalpenak gora egin du nabarmen batez ere, 1975etik aitzina. Izan ere autonomia erregimenak finkatu izanak, euskal historiografiaren hazkunde garrantzitsu bat eragin du. Erakunde publikoek emandako laguntzak garrantzi handia izan dute prozesu honetan; nahiz indusketa arkeologikoetatik ateratako informazioa gero eta garrantzi gehiago hartzen ari den, erdiarolari gehienak oraindik dokumentazioan oinarritzen dituzte beren lanak, beraz iturri dokumentalak lantzea eta ikerleak eskuragarri izatea oso garrantzitsua da⁶.

Alor honetan egin den lan garrantzitsuenetako bat, dudarik gabe, Eusko Ikaskuntzaren *Colección de Fuentes Medievales del País Vasco* bilduma dugu. Berau, Erdi Aroko historiarako tresna garrantzitsu bihurtu da. Ekimena 1982an hasi zen eta bertan ikertzaile, unibertsitateko irakasle eta paleografo profesionalek hartu dute parte. Laguntza

⁶ LEMA, J. Á., y MUNITA, J. A., “Nuevos documentos y nuevos tratamientos de las fuentes para el estudio de la lucha de bandos en Gipuzkoa”; en DÍAZ DE DURANA, J. R. (arg.): *La Lucha de Bandos en el País Vasco: De los Parientes Mayores a la Hidalguía Universal (siglos XIV a XVI)*; Servicio Editorial de la Universidad del País Vasco, Bilbao 1998; 47-96 orr.


publikoak beharrezkoak izan dira prozesu honetan zehar eta egun igarotzen ari garen krisi ekonomikoa dela medio, hauek behera egin dute proiektuaren jarraipena kolokan jarritz.

Lan honen bidez, ikusi ahal izan dugu, euskal historia berregiteko beharrezkoak ditugula idatziak eta egon badaudela, ez garela memoria historiko idatzirik gabeko herrialde bat. Gainera, ikertzaile zein partikularrek gure historia gehiago ezagutzeko eta berregiteko aukera ematen du. Gure etxetik atera gabe eta artxibo desberdinetara lekualdatzen ibili gabe, bertsio *on-line* zein inprimatuan, eskuragarri ditugu Erdi Aroko testuak. Oso iraultzailea da.

1. taula: CFDMPV-ko aleen lurralde banaketa

LURRALDEAK	
Araba	16
Bizkaia	50
Gipuzkoa	47
Iparraldea	2
Nafarroa	35

1. grafika: CFDMPV-ko aleen lurralde banaketa



Baina, zoritxarrez, lana ez da modu orekatuan egin lurralde guztietan, eremu batzuk beste batzuk baino gehiago landu dira. Desoreka hau aztertzeko, datu bilketa bat burutu dugu eta honen ondorio diren datuak aztertuko ditugu hurrengo lerroetan. 5 lurralde bereizi ditugu: Araba, Bizkaia, Gipuzkoa, Iparraldea eta Nafarroa. Banaketa hau ordea oso zaila da burutzen, izan ere, Nafarroa eta Nafarroa Behereko dokumentazioa bereiztea oso zaila da, iraganean erresuma beraren zatia baitziren. Beste adibide bat Naiarakoa dugu. Berau Iruñeko Erresumako hiri garrantzitsu bat izan zen, baina egun Errioxaren barnean aurkitzen dugu. Ondorioz, esan daiteke, garaiko mugak ez datozela egungoekin bat eta honek lurraldeen arteko banaketa egitea zailtzen du. Baina sailkapen arazoan ez dira hemen bukatzen, erregeen bilduma pertsonaletan eta irizpide filologikoa jarraitu duten bildumetan

ere batzuetan arazoak aurkitu ditugu. Adibidez Alfontso I. Nafarroako eta Aragoiko erregea izaki, bere bilduma pertsonalean beste lurralde desberdinetako dokumentuak biltzen ditu eta Gaskoiez idatzitako dokumentuak bildu gura duen bildumetan ere zaila da lurralde batean esleitzea.

Berriro datuetara itzuliz, Bizkaia izan da liburuki gehien argitaratu diren lurraldea. Transkribaketa hauek oso modu sistematikoan egin dira, artxiboz artxibo. Egun 50 argitalpen egin dira Bizkaiako dokumentazioarekin, ia Erdi Arotik lurralde horretako artxiboetan mantendutako dokumentu gehienak landuak izan dira. Ondoren Gipuzkoa dugu, 47 argitalpenekin. Nahiz eta lana ez den Bizkaian adinako sistematizatua izan, lan handia egin da Gipuzkoan ere. Atzetik Nafarroa dugu. Lurralde honetako lanak berandu hasi ziren heltzen, baina 1995-1997 bitartean argitalpen kopuruak asko egin zuen gora. Gaur egun arte 35 liburuxka argitaratu dira. Orain arte aipatutako hiru lurraldeak (Bizkaia, Gipuzkoa eta Nafarroa) dira desoreka honen lurralde ‘irabazleak’, hurrengo lerroan ‘galtzaileak’ aipatuko ditugu: Araba eta Iparraldea. Arabako argitalpenak guztira 16 dira, lan hauetariko gehienak azken urteotan burutu dira. Iparraldea, berriz, ia landu gabe dago, bi argitalpen bakarrik burutu dira lurralde honetako dokumentazioarekin.

Argitalpen hauetan plazaratutako idatziak ikerkuntzarako tresna oso garrantzitsuak dira lehen aipatu moduan. Beraz, lurraldeen arteko desoreka egoteak etorkizuneko ikerkuntzak baldintzatu ditzake. Horrela, argitalpen gehien dituzten eskualdeak, lantzeko errazagoak izango dira, paleografia eta transkripzio arazorik gabe, geure etxetik, liburutegitik edo edozein lekutatik ikertu ahal izango direnak, modu erraz eta bizkor batean. Argitalpen gutxien dituzten lurraldeak berriz, lekualdatzera eta denbora gehiago gastatzera derrigortuko ditu ikerlariak.


Bilduma egileek irizpide desberdinak jarraitu dituzte dokumentazioa argitaratzeko orduan. Hurrengo lerroetan irizpide hauek aztertzen eta sailkatzen saiatuko naiz, horretarako 7 irizpide bereizi ditut; artxibistikoa, instituzionala, historikoa, filologikoa, kodikologikoa, tematikoa eta Euskal Herritik kanpoko artxiboetan bilatutako euskal

dokumentazioa. Argitalpen batzuek irizpide bat baino gehiago jarraitzen dute. Azter ditzagun irizpide hauen nondik norakoak.

2. taula: CFDMPV-ko aleetan erabilitako irizpideak

Artxibistikoa	106
Instituzionala	10
Historikoa	1
Filologikoak	2
Kodikologikoak	4
Bilduma pertsonalak	12
Tematikoak	51
Euskal Herritik kanpoko artxiboetan oinarritutako lanak	9

2. grafika: CFDMPV-ko aleetan erabilitako irizpideak



Argitaratu beharreko agirien irizpideak aldatu egin dira kolekzioaren historian zehar, hasiera batean erakunde batek emandako dokumentazioa biltzen zuten (irizpide instituzionala) baina denborarekin irizpide artxibistikoak indarra hartu du. Hau artxibo jakin batean dauden Erdi Aroko dokumentu guztiak biltzea datza. Irizpide honek alde txarrak eta alde onak ditu; alde txarren artean muga kronologiko bat ezartzea dago, artxiboko dokumentazioan banalerro kronologiko bat ezarri behar da. Baina, noiz amaitzen da Erdi Aroa? Historiako aro desberdinen periodizazioa, dakigunez, historiaren azterketa errazteko modu bat da, baina ez dira modu zurrunean hartu behar, ezin du muga bat suposatu. Azkenean muga 1520an jarri zuten, beraz data honetatik aurrerako dokumentuak ez dira landuak izan. Alde onei dagokienean berriz, artxibo osoko Erdi Aroko dokumentazio guztia lantzeak, lehen begiratuan interes gutxiko dokumentuak ere lantzea ekartzen du. Beraz, nahiz garrantzi gutxiko dokumentua izan lantzen duenarentzat, agian etorkizuneko ikertzaile batentzat balio handiko dokumentu bat da. Nolabait irizpide honek ez du garrantzi hierarkiarik sortzen, kronologia barnean sartzten diren dokumentu guztiekin egiten du lan. Baina, dudarik gabe, ez da berdina irizpide artxibistikoa artxibo txiki batean

edo handi batean aplikatzea. Irizpide hau jarraitzen duten 114 argitalpen daude, irizpide erabiliena da.

Beste irizpide bat instituzionala da; hau instituzio publiko zein eklesiastiko baten inguruko dokumentazioa biltzea da, irizpide honekin 8 liburuki argitaratu dira. Hasiera batea, argitaratu ziren lehen liburuxkek irizpide hau jarraitzen zuten, baino ondoren irizpide artxibistikoak hartu zuen garrantzia. Elizetako, monastegietako, kofradietako eta beste hainbat instituzioetako dokumentuak bildu dira.

*Álava en la Baja Edad Media a través de sus textos*⁷ izena duen argitalpenak irizpide historiko moduan definitu duguna jarraitzen du. Bilduma honen helburua transkribaketak egitea eta hau ikerlariari bideratzea da neurri handi batean. Baina ez da hori soilik. José Ramón Díaz de Duranak, Behe Erdi Aroko Arabaren inguruko dokumentazioa biltzen du liburuki honetan, nolabait ikerketa lerro batean kokatzen ditu dokumentuak, agirien aukeraketa bat dago honen atzean beraz. Ez ditu artxiboetako dokumentazio osoa argitaratu nahi izan, baizik eta ikerketa burutzeko interesgarrienak izan direnak bakarrik.

Aipatu beharreko hurrengo irizpidea filologikoa da, hau da hizkuntza batean idatzirik dauden dokumentuen bilduma. Kasu honetan Gaskoiez idatzitako dokumentuei buruzko bi liburuki argitaratu dira. Irizpide kodikologikoak, kodize eskuizkribu edo liburu bat osatzen duten dokumentuak biltzean datza. Gure bilduman, 26 liburuki egin dira irizpide hau jarraituz hautatutako dokumentuekin.

Bilduma pertsonalak gizabanako batek ekoiztutako edo jasotako dokumentuen bilduma da. Orotara 10 bilduma egin dira irizpide hau jarraituta. Hauetatik ia guztiak erregeen dokumentazio bildumak ditugu.

Irizpide artxibistikoak aipatu ditugunean, artxibo handietan dokumentu asko daudenetan lan egitea zailagoa dela esan dugu. Lan hau errazteko beste irizpideak gehitzea

⁷ DÍAZ DE DURANA, J. R., *Álava en la Baja Edad Media a través de sus textos*, Eusko Ikaskuntza (Colección de Fuentes Documentales Medievales del País Vasco, 54. liburukia), Donostia, 1994


eta konbinatzea erabaki dute ikerlari batzuek. Horrela adibidez ‘Archivo Municipal de Salinas de Añana-Gesaltza. Libro de elecciones, Acuerdos y Cuentas (1506-1531)’ liburukian irizpide artxibistikoa eta kodikologikoa erabili dira.

Azken ekimena, gure lurraldetik at dauden artxiboetan Euskal Herriarekin erlazioa duten dokumentuak biltzean datza. Horrela adibidez Simancas edo Valladolideko artxiboetako dokumentazioa bildu da. Irizpide artxibistikoa du izatez, baina Euskal Herritik kanpo dauden artxiboetan egin da bilaketa hau. Irizpide hau jarraitzen duten 9 liburuki daude. Irizpide hau jarraitzen duten liburuki gehienetan Bizkaiko dokumentazioa bildu da.

Araba

Arabako lurralde historikoan lan asko dago oraindik egiteko. Aurreko puntuan aipatu dugun moduan *Colección de Fuentes Documentales Medievales* bildumaren ezaugarrietako bat lurralde desoreka da; Bizkaia, Gipuzkoa eta Nafarroa landu dira gehien eta Araba eta Iparraldea berriz baztertuak izan dira. Arabari loturiko dokumentazioa erabiliz 16 liburuki argitaratu dira orotara. Hauetariko gehienek irizpide artxibistikoa jarraitu dute eta honekin Arabako zein eskualde landu diren gehiago eta zein ez jakin daiteke. Ideia honekin mapa bat proposatzen dugu:

1. mapa: CFDMPV-n landutako udalerriak



Koadrila moduan ezagutzen diren 7 unitatetan banatzen da Araba eta koadrila hauetan hegemonia duen udalerria gailentzen da, honen erakusgarri da koadrilak herri honen izenarekin izendatzen direla, nolabait inguruko herrixken bilgunea da. Jatorri historikoa du

banaketa administratibo honek. Baina gure gaira itzuliz, mapa honen helburua, Arabako

artxibategien lanketen hutsuneak ezagutzea da. Agurain eta bere koadrila guztia landu dela ikus daiteke, beraz lan honek aztertu nahi duen eremuko udal artxiboetako Erdi Aroko agiri ia guztiak argitaratuak izan direla baieztatu daiteke. Orokorki, ekialdea landu da gehien. Mendebaldea eta hegoaldea berriz ikertu gabe dago oraindik. Beraz, Araban lan handia dago oraindik egiteko.

Baina benetan harritzekoa eta kezkatzekoa Gasteizko egoera dugu. Gasteizi zuzenduriko liburuak bat bakarrik dago eta hau Pedro I eta Enrique IIaren inguruko dokumentuen bilduma da. Honez gain esan beharra dago Diaz de Durana ikerlariak zenbait agiri gehiago argitaratu dituela bere lanetan⁸ baina ala ere kopurua oso urria da. Ideia bat egiteko Gasteizko Udal Artxibategian bakarrik, 1181etik 1520ra bitarteko 400 agiri inguru daudela kalkulatu da. Hauetatik 314, 1500 baino lehenagokoak dira eta 86 agiri daude 1500 eta 1520 bitartean⁹. Beraz, esan daiteke, udal artxiboaren zati oso handi bat aztertzeko dagoela. Agiriez gain, akta liburu asko ere argitaratzeko daude. 1522 arte 10 tomo daude eta 1428-1522 eremua falta da argitaratzeko. Baina urte tarte hau guztia ez da Gasteizko Udal Artxiboan gordetzen, 1430-1478 bitarteko akta liburuak desagertuta daude. Batzuek sute baten ondorioz izan daitezela diote, historian zehar horren arruntak izan ziren suterren batean erreko zirela alegia. Beste batzuk, beraien balore materiala eta ekonomikoa zein handia izan batek lapurtu ahal izan zuela uste dute, gertaera hau ez litzateke harritzekoa izango garai horietan ez baitzegoen dokumentazioaren kontrol handirik. Hirugarren hipotesiak Gasteiz oso hiri monarkikoa zela oroitarazten digute, hasiera batean Nafarroako Erresuman eta ondoren Gaztelako Erresuman. Ondorioz, auzi bat ebazteko edo egiteko batetarako akta liburu hauek erreinuko beste lekuren batera lekualdatuko zituztela proposatzen dute. Markinako foruarekin, adibidez, antzeko arazo bat gertatu zen. Gainera Udal Artxiboaz gain Gasteizen Lurralde Historikoko artxiboa eta Arabako probintziako artxiboa aurkitzen dira eta hauek ez dira landuak izan. Beraz, nahiz aurrerago proposatutako mapan berdez margozte erabaki, Gasteizen lan asko dago egiteko.

⁸ DÍAZ DE DURANA, J. R., op. cit. Eusko Ikaskuntzaren bildumako argitalpenaz gain beste ekimenetan ere hartu du parte Díaz de Durana ikerlariak. Azken hauek hurrengo atalean ezagutuko ditugu.

⁹ José Antonio Munita irakasleak helarazitako datuak.

Nahiz eta Gasteizko kasua oso larria izan, Araba hegoaldea eta mendebaldea ere landu gabe daude. Honen atzean arrazoi ugari aurki ditzakegu. Alde batetik instituzio publikoen laguntza eza legoke, ikertzaileak bere lana burutu ahal izateko sortu ahal zaizkion traba burokratikoak gainditzeko laguntza eza. Bestetik, ikertzaile talde finkorik egon ez dela azpimarratu nahiko nuke, honek dudarik gabe lana zaildu du. Baina badira salbuespenak ere, azpimarratzekoa da Goicolea, Pozuelo eta Bazánen lana. Eta askotan ez da behar bezala baloratzen horrelako bilduma baten atzean dagoen lana, eta ondorioz berau burutzearengatik emandako ordainsaria oso txikia da.

Agurain

Colección de Fuentes Documentales Medievales del País Vasco bilduman hiru liburuki daude Agurainen oinarrutuak; horra hor: 18¹⁰, 83¹¹, 115¹² eta 141. aleak¹³. Egileak, berriz, hiru izan dira, Esperanza Iñurrieta Ambrosiok argitaratu zuen lehenengoa, Francisco Javier Goicolea Juliánek bigarrena eta hirugarrena, eta Felipe Pozuelo Rodríguez azkenengoa. Beraz, Aguraingo Udal Artxiboko Erdi Aroko agirien argitalpena hiru ikerlarion lana izan da eta 21 urtetan burutu dira argitalpenak (1989-2010).

Guztiek egitura berbera erabiltzen dute. Hasteko, hitzaurrean, aurreko ataletan eginiko lana aipatzen da eta ondoren testuen datetan Agurain eta bere inguruan gertatuko diren aldaketa garrantzitsuenen laburpen bat egiten da. Baina oso oso laburra da alal hau. Esan daiteke, argitalpen hauen helburua, ondorengo ikerketen oinarri izango diren agiriak kronologikoki ordenatu, inbentariatu eta transkribatzea dela. Esperanza Iñurrieta Ambrosioren hitzetan ‘ *[El objetivo] no haya sido el de confeccionar una historia de una villa sino la base sobre la cual ha de sustentarse y montarse posteriormente dicha*

¹⁰ IÑURRIETA AMBROSIO, E., *Colección Diplomática del Archivo Municipal de Salvatierra 1256-1400*, Eusko Ikaskuntza (Colección de Fuentes Documentales Medievales del País Vasco, 18. liburukia), 1989, Donostia.

¹¹ GOICOLEA JULIÁN, F. J., *Archivo Municipal de Salvatierra-Agurain 1401-1450. Tomo II*, Eusko Ikaskuntza (Colección de Fuentes Documentales Medievales del País Vasco, 83. liburukia), 1998, Donostia.

¹² GOICOLEA JULIÁN, F. J., *Archivo Municipal de Salvatierra-Agurain 1451-1500. Tomo III*, Eusko Ikaskuntza, Eusko Ikaskuntza (Colección de Fuentes Documentales Medievales del País Vasco, 115. liburukia), 2002, Donostia.

¹³ POZUELO RODRIGUEZ, F., *Archivo Municipal de Salvatierra-Agurain. Tomo IV (1501-1521). Apéndice 1259-1469*, Eusko Ikaskuntza (Colección de Fuentes Documentales Medievales del País Vasco, 141. liburukia), 2010, Donostia,

historia'.¹⁴ Agiriaren transkribaketaren aurretik zenbaki bat esleitzen zaio, hau kronologiaren arabera gauzaten dute. Ondoren agiria topografikoki eta kronologikoki kokatzen da. Jarraian agiriaren laburpen txiki bat eskaintzen zaio irakurleari, lehenengo begiratuan agiria bere ikerketarako edo jakinmina asetzeko gaiak jorratzen dituen edo ez jakiteko. Ikertzaileak agiria zuzenean kontsultatu nahi badu, artxiboan zein kokapen duen ere esaten da eta baita testuaren gaiaren inguruko bibliografia eskaintzen zaio irakurleari¹⁵. Honen guztiaren gibeletik, testuaren transkribaketa editatzen da.

Esperanza Iñurreta Ambrosiok 1256tik 1400era bitarteko agiriak eskaintzen dizkigu 18. liburukian. Lanaren lehen pausuk dira eta beraz inbentarioan zeuden agiri batzuk falta direla eta beste batzuk berriz errepikatuta daudela esaten du hitzaurrean. Lana burutu ostean, argitalpenak ekar ditzakeen onurez gain, artxiboan zer dagoen jakitea eta ordenatuta edukitzea ahalbidetzen du eta honek ikertzaileak bertara gerturatzean eginiko kontsultei errazago erantzutea ahalbidetzen du. Guztira liburuki honetan 104 agiri argitaratzen dira. 83 eta 115 liburukien lanketa Francisco Javier Goicolea Juliánek egin zuen aurretik aipatu dugun moduan. Berak, artxiboa oso egoera onean bilatu duela diosku, ordenatua eta inbentariatua. 83. liburukian 60 dokumentu argitaratu zituen eta 115.ean berriz 109. Azkenik Felipe Pozuelo Rodriguez dugu, berak 1501-1521 bitarteko agiriak argitaratzeaz gain, 1259-1469 bitartean Esperanza Iñurreta Ambrosiok argitaratu gabe utzi zituen agiriak palazaratu zituen. Guztira 200 agiri argitaratzen ditu liburuki honetan. Guztira 473 agiri argitaratu dira lau liburukietan.

2.2.- BESTE EKIMEN BATZUK

Eusko Ikaskuntzak proposatutako proiektu honetaz gain, beste hainbat ekimen ere aipatu nahiko nituzke . Hasteko Euskal Herriko Unibertsitateko Erdi Aroko Saileko *Honra de Hidalgos, Yugo de labradores: Nuevos textos para el estudio de la sociedad rural*

¹⁴ IÑURRETA AMBROSIO, E., op.cit, 3 orr.

¹⁵ Agiri batzuk jada MARTINEZ DIEZ, G., *Alava Medieval*, Tomo 2, Diputación Foral de Alava, Gasteiz, 1974 eta LANDÁZURI Y ROMARATE, J.J., *Obras Históricas sobre la Provincia de Álava*, Diputación Foral de Alava-Consejo de Cultura, Tomo I-II-III-IV, 1976, Gasteiz argitalpenetan transkribatuta eta ikertuta zeudenez, beraien aipamena agertzen da bibliografiari zuzenduriko atalean.

alavesa (1332-1521)¹⁶ eta *Los señores de la guerra y de la tierra: Nuevos textos para el estudio de los parientes mayores guipuzcoanos* (1256-1548)¹⁷ egitasmoak aipatuko ditugu. Bi ekimen hauek *Colección de Fuentes Documentales Medievales* proiektuaren planteamendu desberdina jarraitzen dute. Lehen esan dugun moduan honen xedea ikerlari edo interesatuei ikerketa bat burutzea erraztea da. Bertan gehienbat irizpide artxibistikoa erabili da, ondorioz Erdi Aroko agiri guztien argitalpena eman da landu diren artxiboetan. EHUko sailak, berriz, agirien gaineko aukeraketa bat proposatzen digute. Agiri hauek beraien ikerketa gaiarekin izango dute lotura, nolabait ikerketan proposatutako hipotesien euskarri izango dira.¹⁸ Gainera erabiliko dituzten transkribaketa arauak ere azaltzen zaizkigu bi lan hauetan, hau oso garrantzitsua iruditzen zait.

Beste egitasmo bat Gonzalo Martínez Diezen¹⁹ *Alava Medieval* izeneko bi liburukidun lana dugu. Lan honetan Arabako Erdi Aroko historia politikoa azaltzen digu. Honetarako, izaera erudito sendoa eta tradizionala agertzen du idazleak. Liburuaren bukaeran testu originalen transkribaketak ere eskaintzen dizkigu. Ondorengo beste lan askoren oinarri izan da lan hau.

Santiago Villimer ikerlariak Arabako latinez idatzitako agirien bilduma eta transkribaketa eskaintzen dizkigu *Documenta Alavae Latina*^{20,21} lanean. Bertan Eusko Ikaskuntzaren *Colección de Fuentes Documentales* bilduman erabiltzen den egitura bera

¹⁶ GOIKOLEA JULIÁN, F.J., VILLANUEVA ELÍAS, E., LEMA PUEYO, J.Á., FERNÁNDEZ DE LARREA ROJAS, J.A., MUNITA LOINAZ, J.A., DÍAZ DE DURANA ORTIZ DE URBINA, J.R., *Honra de hidalgos, yugo de labradores: Nuevos textos para el estudio de la sociedad rural alavesa (1332-1521)*, Euskal Herriko Unibertsitatea, 2005.

¹⁷ LEMA, J. A., FERNÁNDEZ DE LARREA, I. A., GARCÍA FERNÁNDEZ, E., MUNITA, J. A., DÍAZ DE DURANA, J.R., *Los señores de la guerra y de la tierra: Nuevos textos para el estudio de los parientes mayores guipuzcoanos (1265-1548)*, Diputación Foral de Gipuzkoa, Departamento de Cultura, Euskera, Juventud y Deportes (Iturriak / Gipuzkoako Artxibo Orokorra-Fuentes / Archivo General de Gipuzkoa.), 2000

¹⁸ Nire iritiz, ikerkuntza haririk gabe eginiko agiri bildumak oso pobre gelditzen dira. Aguraini Eusko Ikaskuntzak eskaini dizkion lau liburukiek sarrera oso labur bat gutxienez eskaintzen digute. Baina bilduma honetako liburuki askotan hitzaurrerik gabe agirien transkribaketa hasten da. Ikus AYERBE IRÍBAR, M.R., IRIXOA CORTÉS I., LEMA PUEYO J.Á., SAN MIGUEL OSABA, A., *Documentación Medieval del Archivo municipal de Oiartzun. III (1320-1520)* Eusko Ikaskuntza (Colección de Fuentes Documentales Medievales del País Vasco, 148. liburukia), 2013 Donostia.

¹⁹ MARTÍNEZ DIEZ, G., op.cit.

²⁰ VILLIMER LLAMAZARES, S., *Documenta alavae latina*, I liburukia, Arabako Diputazioko Kultura Saila, 1977, Gasteiz.

²¹ VILLIMER LLAMAZARES, S., *Documenta alavae latina*, II liburukia, Arabako Diputazioko Kultura Saila, 1984, Gasteiz .

erabiltzen da. Testuak gaika eta kronologiaren arabera antolaturik agertzen bazaizkigu ere, ez dator ikerketa batek lagunduta.

Emiliana Ramos Remediosek, bestalde Gasteizko Apeoa argitaratu eta aztertu zuen. Apeoak udalerrien mugak zehazten dituzten agiriak dira²².

Amaitzeko, garbi dago panorama heterogeneoa daukagula gure aurrean, argibide dokumentalak argitaratzeko aplikatu diren irizpide aniztasunetik sortutakoa.

3.- DATUEN SISTEMATIZAZIOA

3.1.- AGIRI KOPURU OROKORRA ETA BEREN BANAKETA KRONOLOGIKOA

Aguraingo Udal Artxiboan 1256-1521 bitarteko kronologia duten 475 agiri mantendu dira. Zergatik izan dira agiri hauek eta ez beste batzuk? Galdera honek erantzun zaila du. Badakigu hausa eta historian zehar idatzi hauek ‘zaindu’ dituztenen aukeraketa nahasten direla. Nolabait, agiri bakoitzak bere bizi funtzionala du, urte batzuetan edo agian mende batzuetan agindu, pribilegio edota auzi bat ebasteko giltzarri izan da. Baina, funtzio hauek bete ostean hitz multzo soil bihurtzen da. Orduan, funtzio gabe eta oraindik balore historiko gabea bihurtuko da, eta beraz berau gorde ala ez erabaki beharko da. Honetarako garaian agiriari ematen zaion balioa handia den edo ez garrantzitsua izango da.

Udalek mende luzeetako bizitza dute. Honek bertan gordetako agiri bildumak handi eta garrantzitsu bihurtzen ditu historiagileentzat. Dakigun moduan, udaletxeak bere jarduna zuzentzen duen eremuaren administrazioa hartzen du bere gain eta honetarako agiriak igorri eta jaso egiten digu. Zoritxarrez, honek ere baldintzatuko du udal artxibategian aurkituko ditugun agiriak. Izan ere, udaletxeak igorri edo eman dituen agiriak jasotzaileak gordetzen ditu beraz udal artxibategian ez dira aurkituko. Baina zorionez, kasuren batetan udalak kopia bat gordetzen du edo beste batzuetan agiriaren jasotzaileak erantzuna ematen duen agirian, aurreko eskuizkribuaren aipamena egiten du, horrelako adibideen laguntzat udalaren jarduera hobeto ezagutzeko aukera dugu.


²² RAMOS REMEDIOS,E., *El apeo de Vitoria y su jurisdicción a fines del siglo XV*, Gasteizko Udala, 1999, Gasteiz; 2 liburuki.

Agirien zenbaketarekin hasi aurretik, azken gogoeta bat burutu nahiko nuke. Egun botereen banaketa dela medio, botere exekutiboa eta botere judiziala banaturik ezagutu ditugu baina Erdi Aroan udaletxeak eta alkateak sententziak eta justizia aplikatzeko gaitasuna zuten. Ondorioz agiri judizialen presentzia handia aurkituko dugu gure Aguraineko Udal Artxiboko agirien bilduman. Datuen analisia errazteko taula eta grafiko bat burutu ditut:

3. Taula: Aguraingo Udal Artxibategiko agirien kopurua XIII, XIV, XV eta XVI mendeetan zehar

	XIII	XIV	XV	XVI
01-25		37	36	140
26-50		22	26	
51-75	9	21	69	
76-00	21	52	42	
Guztira	30	132	173	140
%	% 6,31	% 27,79	% 36,42	% 29,47

3. Grafika: Aguraingo Udal Artxibategiko agirien kopurua XIII, XIV, XV eta XVI mendeetan zehar



XIII. mendeko 30 agiri aurkitzen dira Aguraingo Udal Artxiboan. XIV. mendean berriz kopurua 10 aldiz biderkatzen da, guztira 132 agiri aurkitzen ditugu. Hazkunde nabarmena. XV. mendean ere kopuruak gora egiten jarraitzen du, %31ko hazkundera hain zuzen, kopuru osoa 173 agirira igotzen delarik. Irizpide artxibistikoari buruzko gogoetak egin genituenean aipatu genuen irizpide honen alde txarretako bat muga kronologiko bat ezarri behar dela da. Horregatik 1521. urtea hartzen da azkeneko urte gisa lan honetan. Honen ondorioz, XVI. mendeko 140 agiriak 1501 eta 1521 bitarteko 20 urteetakoak dira. Beraz nahiz guztira aurreko mendean baino agiri gutxiago izan, hogeitun urterekin bakarrik dagokionez, izugarritzko hazkundera dela esan behar dugu.

Espainiako Erdi Aroko Agirien banaketa kronologikoari so egiten badiogu, Aguraingo datu oso antzekoak ematen dizkigula ohartuko gara. Errege Katolikoaren garaitik aurrera dokumentazioak gora egiten du nabarmen eta XV. mendea da agiri gehien kontserbatu diren mendea²³

3.2.- AGIRI MOTAK EGILEAREN ARABERA

4. Taula: Aguraingo Udal Artxiboko agiriak egilearen arabera

Errege agiriak	Gaztelako koroa	Kantzelaritza	204	250	% 52,63
		Ogasuna	37		
		Justizia	6		
	Nafarroako koroa	Kantzelaritza	3		
Eliz agiriak	Ardura lokalen agiriak		4	6	% 1,26
	Aita Santuaren agiriak		2		
Udal agintarien agiriak	Aguraingo udalak emandakoak	Aginduak	67	117	% 24,63
		Justizia ²⁴	40		
	Beste udalek emandakoak		10		
Arabako Diputazioaren eta Ermandadearen agiriak			11	11	% 2,31
Jaunen agiriak ²⁵			27	27	% 5,68
Notarioaren aurrean eginiko agiri pribatuak			64	64	% 13,47

²³ GARCÍA DE CORTÁZAR, J.Á., MUNITA, J.A., FORTÚN, L.J., *Codiphis. Catálogo de colecciones diplomáticas hispano-lusas de época medieval*, Fundación Botín, 1999, Santander, 78-85.

²⁴ Lur komunalen eta mugen gatazkak justiziaren barnean sailkatu ditut.

²⁵ San Millan eta bestelako nobleen elkarrekin emandako agiriak jaunen agirien barnean sartu ditut.

Agiriek igorle eta jasotzaile bat edo bat baino gehiago izaten dituzte. Gure kasuan Aguraingo Udal Artxiboko Erdi Aroko bilduma osatzen duten agiri hauen igorlearen analisi bat proposatzen dugu. Lehen esan dugun moduan, udalek agiriak igorri eta jaso egiten dituzte baina igorritakoak askotan hartzaileak gordetzen ditu eta ondorioz Udal Artxibategitik kanpo geldituko dira. Honengatik, udalak jasotako agiri gehiago egoten dira igorritakoak baino.

Premisa honi jarraiki, aztergai ditugun 475 agirien igorlearen inguruko sailkapen eta analisi bat burutu dugu. Helburua sailkapen sinple eta sintetiko bat egitea da, horretarako ahalik eta irizpide zabalenak erabili ditut. Horrela 5 sail orokor proposatu ditut: errege agiriak, eliz agiriak, udal agintarien agiriak, Arabako Diputazio eta Ermandadearen agiriak, jauntxoaren agiriak eta notarioaren aurrean eginiko agiriak. Has gaitezen banan bana bakoitza aztertzen.

Aguraingo Udal Artxiboko Erdi Aroko agirien %52 erregeak helarazitako agiriek osatzen dute, inguru. Oso kopuru garrantzitsua da. Zergatiak asko izan daitezke, alde batetik agiri hauek idatzita dauden euskarriak egiteko erabilitako materialak kalitate ona dute, denbora asko irauteko pentsatuta daude. Gainera, agindu hauetariko asko denbora luzean indarrean egoteko pentsatuta daude eta beraz udalak agiri garrantzitsutzat hartzen ditu. Adibidez, mende hauetan zehar errege erregina desberdinek pribilegio andana eskaintzen dizkiote Aguraingo hiribilduari, eta hauek zin egiten dituzten agiri andana gorde zuten garaiko agintariek.

Erregeak Aguraingo udalari zuzenduriko idatzi hauetan, bien arteko harreman estua ikus daiteke. Horrenbeste zer Aguraingo Udalak bertako jaun diren Aialatarak eta koroa haserretzen direnean erregearen alde egiten du.²⁶ Koroaren eskumenak eta politika aldatzen joaten dira mende hauetan zehar, aldaketarik nabarmenena, nire ustez, Errege Erregina Katolikoekin gauzatzen da. Beraiek Aguraingo hiribilduari arazo edo norgehiagoketan bitartekari moduan jardungo dute. Gainera, burokraziaren hazkunde bat gauzatuko dute, hau nabarmen ikusten da XIV mendearen bukaeran eta XV. mendearen hasieran. Gaztelako

²⁶ POZUELO RODRIGUEZ, F., op.cit, 627-630 orr.

Koroaz gain Nafarroako Koroak igorritako agiri bakan batzuk ere gorde izan zituzten, bi koro hauen norgehiagokak aztertzeke baliagarri suerta daitezke agiri hauek.

Bereiztu dugun bigarren saila Elizak igorritako agiriei dagokie. Hauek oso urriak dira. Udalaren eta Elizaren arteko harremana ezagutzeko elizaren artxiboetara jo beharko genuke, bertan egon daitezkeen agiriak aztertzeke.

Hirugarrenik Udalek igorritako agiriak ditugu. Udalek oso agiri heterogeneoak igortzen dituzte eta ondorioz sailkapena burutzeko xehetasunak alde batera utzi eta orokorki aginduen eta justiziaren baitako sailkapen bat proposatzen dut. Udalaren administrazioaz arduratzen diren funtzionarioen agiriak ere bertan sailkatu ditut. Aguraingo udalaz gain inguruko beste udal batzuen erabakiek ere izan dute zer esana herriaren historian. Horregatik, beste udalek igorritako dokumentazioa ere aurkitu dugu. Udalen arteko auziak askotan errepikatzen dira, gehienetan lurren eta baliabide naturalen gaineko kontrola izaten da eztabaidagai.

Diputazioa eta Ermandadean ikertzen ari garen bitarte kronologiko honetan sortzen eta garatzen dira. Aro Berrian zehar garrantzia irabazten joango dira erakunde hauek. Beren indartzea nabarmena da aztergai ditugun dokumentuetan, udalen eta erregeen boterearen erdian kokatuko da eta horrela herriaren, botere lokalen eta erregearen harremanetarako beharrezko tresna bihurtuko da.

Erakunde berriak sortzen doazen heinean, jaun tradizionalen eskumenek behera egiten dute. Erregeak gero eta botere gehiago zentralizatuko du eta honek nobleziaren boterearen galera suposatuko du. Beraz jaunek formula berriak asmatu beharko dituzte gizartearen gai mailan jarraitzeke. Trantsizio honetan gauzatutako egoera desberdinen adibide andana aurki daiteke aztergai dugun dokumentuetan. Udalen eta tokian tokiko nobleziaren arteko gatazkak anitzak izango dira garai honetan.

Azkenik, agiri pribatuak aipatu nahiko nituzke. Hauek salerosketak, testamentuak eta botere emateak dira besteak beste. Agiri hauetan norbanako ezezagunek notario bati nahi edo ekintza bati nortasun juridikoa eskatzen diote. Guztira 64 horrelako agiri gorde dira udal artxiboan eta hauetatik gehiengoa XIV eta XV. mendeetako kronologian kokatzen da.

3.3.- ISLATZEN DIREN GAI HISTORIKOAK

Hastear gauden atal honetan agirien gaiaren araberrako sailkapen bat egingo dugu. Kasu honetan, helburua ez da izango bilduman ditugun agiri guztiak aipatzea, baizik garrantzitsuenak edo esanguratsuenak iruditu zaizkigunak azpimarratuko ditugu, zenbait arazo historiko ikertzeko baliogarriak diren neurrian. Atal hau egiteko *Salvatierra y la Lanada oriental alavesa (Siglos XIII-XV)*²⁷ eta *La oligarquía de Salvatierra en el tránsito de la Edad Media a la Edad Moderna*²⁸ liburuak -goian aipatutakoak- erabili ditut oinarri gisa.

Horrela gure sailkapena gai hauetan banatuko da: hiribilduaren sorrera, udalaren funtzionamendua, udalerrien mugak, eta gatazka desberdinak. Sailkapen honetan agirietan agertzen diren gai guztietatik aukeraketa bat burutu da, nire ustez garrantzitsuenak direnak hautatuz.

Has gaitezen hiriburuaren sorrerari buruzko agiriak aipatzen. Salvatierra izana eta foruak Alfontso X. aren eskutik lortu zituen Agurainek. Horrela 1256ko urtarrilaren 23an aurreko *Hagurain* atzean utzi eta oinarri juridiko zein administratibo berria hartuko du. Herri desberdinen artean, foruak ere desberdinak izaten ziren, Agurainen kasuan ‘*Doles e otorgoles que ayan fuero de Vitoria en todas las cosas ansi cuerno los de Vitoria lo han*’²⁹, hau da Gasteizko eskumen berberak eman zitzaizkion Aguraini. Arabako Lautadan erregearen influentzia zabaltzea lortu zuen horrela Alfontso X.ak.

Erregeak Agurain hirigune garrantzitsu, ekialdeko Lautadako botere zentroa bihurtu nahi zuen. Horretarako, ‘*por fazer bien / e merçed a todos los moradores e pobladores que son en Salvatierra e seran para siempre jamas e porque se pueble mejor*’³⁰, hainbat pribilegio eman zizkion Aguraingo hiribilduari. Adibidez, aurretik aipatu dugun moduan, Agurainen merkataritzak garrantzi handia zuen bere kokapen estrategikoa zela medio. Hau zela eta Alfontso X.ak ‘*quitamos les que non den portadgo en toda nuestra tierra de*

²⁷ PASTOR DIAZ DE GARAYO, E., op.cit.

²⁸ GOICOLEA JULIÁN, F. J., *La oligarquía de Salvatierra en el tránsito de la Edad Media a la Edad Moderna*, Universidad de la Rioja, Logroño, 2007.

²⁹ IÑURRIETA AMBROSIO, E., op.cit. 17 orr.

³⁰ Ibidem, 20 orr.

ningunas de sus cosas que troxieren'³¹. Beraz, merkataritza jardunagatik ordaindu beharreko zergez salbuesten zituzten Aguraingo merkataria.

Hurrengo gaia udalaren funtzionamenduaren ingurukoa dugu. Udalari lotuta hiriko oligarkia azalduko zaigu, hau XIV. mendetik aurrerako agirietan agertuko da gehienbat. Familia garrantzitsuenak Paterninatarrak, Zuazoarrak eta Arraraindarrak ditugu. Familia hauetako kideek prokuradore, eskribau, alkate, zerga biltzailearen ardurak bereganatu zuten. Izan ere, ez da harritzekoa agirietan, horrelako esaldiak aurkitzea: *paresçieron presentes Ruy Peres de Ararrayn vachiller/ en decretos e Lope Garçia de Çuaçu e Gomes Ferrandes/ de Paternina, vesinos de la dicha villa de Salvatierra/ de Alava*.³²

Agiriak udalaren funtzionamenduaren berri ere ematen digute. Akta eta ordenantza liburuak falta dira XVI. mendearen erdira arte³³, beraz gu aztertzen ari garen garaikorik ez dago. Honek udalaren funtzionamendu zehatza ikertzea zailtzen du. Alfontso XI.aren erreformaren aurreko garaiari buruz ia ez dakigu ezer, garai honetan oso gutxi mantendu baitira udalak jaso edo eman zituen agiriak. Alfontso XI.aren erreformak, udaleko egitura aldatu zuen eta ofizial kopuruak gora egin zuen. Horrela, hemendik aurrera alkate, eskribau, erregidore, prokuradore, *bolsero* eta zinpekoek osatuko dute eta egitura hau XVI. mendera arte mantenduko da³⁴.

Alkatearen funtzio zehatzak ezagutzea zaila da, ez baitago hau modu zuzen batean zehazten duen agiririk. Baina, aztertu ditugun agirietan argi ikusten da zuen funtzio nagusienetako bat justizia aplikatzea zela, beste udaletan gertatzen zen bezala. Agurain bertako, bere jurisdikziopean zeuden herrixketako edo inguruko beste herrietako liskarretan bitartekari moduan agertuko zaigu behin eta berriz Aguraingo alkatea. Aipamen honetan argi ikusi daiteke: “*yo el dicho Ochoa Peres, alcalde, fui requerido que tomase el dicho pleito en el punto e estado en que el dicho alcalde lo dexo, e pasase por el dicho pleito adelante segun que fallase por fuero e por derecho*”³⁵. Egin behar honetan zinpekoek lagunduko zioten.

³¹ Ibidem 20 orr.

³² GOICOLEA JULIÁN, F. J., op.cit, Tomo III, 59 orr.

³³ PASTOR DIAZ DE GARAYO, E., op.cit ,162 orr.

³⁴ Ibidem, 163 orr.

³⁵ GOICOLEA JULIÁN, F. J., op.cit, Tomo II, 38-41,orr.

Aguraingo udaletik egiten dugun azterketa labur honetan erregidorearen papera ere azpimarratu nahiko nuke. Berau aurretik aipatu dugun Alfontso XI. erreformatik aurrera aurkitzen dugu Gaztelako udaletan. Erregidoreak erregeak aukeratzen zituen, Koroaren ordezkaritza lana egin zezan. Ez dakigu Aguraingo udalaren autonomia noraino murriztu zen erreforma honekin baina erregeek gutxika-gutxika udalaren jardueretan eragin gehiago hartuko dute mendeek aurrera egin ahala.

XIV eta XV. mendeetan udalaren bilkurak San Martin elizaren portikoan ospatzen ziren baina denborarekin, kontzejua itxi egingo da eta prozesu honetan premisa hau aldatu egingo da. Oso esanguratsua iruditzen zait ondorengo aipu honetan prozesu hau nola esplikatzen den:

En los tiempos/ pasados los conçejos e ayuntamientos de esa dicha villa se fasian publicamente ante todos los vesinos de ella syendo para ello llamados por pregones/ e que a cabsa de esto se recresçian algunos escandalos e questiones entre los vesinos de la dicha villa sobre las cosas que en los dichos conçejos se/ avyan de faser e hordenar e quede ello se seguian otros muchos ynconbenyentes. E que por evitar esto dis que esa dicha villa acordo que los dichos ayuntamientos/ se fisiesen por los alcaldese regidores e diputados de esa dicha villa secretamente cada ves que fuese nesçesario conforme a las leyes de nuestros reynos/, e sobre ello fisieron çiertas ordenanças, las quales dis que han sydo usadas e guardadas despues que sefisieron, e que a cabsa de ello han çe/ -sado los dichos escandalos e ynconven-yentes³⁶

Aldaketa hauek Errege Katolikoek bultzatu zituzten. Erreformek aurrera jarraitu zuten, 1538an Aguraingo Ordenantzak berridatzi zituzten, hemendik aurrera beraz udalaren funtzionamendua zeharo aldatuko da. Aldaketa hauen ondorioetako bat oligarkia oraindik eta gehiago indartzea izango da. Honen adibide gisa, erreforma hauen baitan diputatu kargua sortuko da. Diputatu izateko ezaugarri sozio-ekonomiko jakin batzuk bete behar ziren eta gainera beren aukeraketan ez zuen herriak parte hartzen. Horrela *‘El resultado de todo ello fue restringir (de derecho) el acceso a los cargos municipales a la elite dirigente que ya venía controlando (de hecho) el Regimiento desde por lo menos la Baja Edad Media³⁷*. Gutxika gutxiga, gainera, elite lokal hau probintziako aginte organoetan prte hartzen hasiko da eta honek beren boterea oraindik eta gehiago haztea ekarri zuen.

³⁶ GOICOLEA JULIÁN, F. J., op.cit,III. Tomoa 315-316 orr.

³⁷ GOICOLEA JULIÁN, F. J., *La oligarquía de Salvatierra...*, op.cit.,122 orr.

Hau esanda, alde batera utziko dugu udalaren funtzionamendua eta agiri oso esanguratsu batean egingo dugu parada. 1429an udaleko agintariek, udal artxibategiko inbentarioa agintzen dute³⁸. Guztira inbentario honek 9 folio ditu eta bertan artxihoan gordetzen diren agiri bakoitzaren aipamena egiten da. Agiri hau oso interesgarria izan daiteke egun galduta dauden agirien berri jakiteko.

Udalerrien mugen inguruko atalari emango diogu hasiera jarraian. Auzi asko aurki daitezke gai honen inguruan. Agurain hiribilduak inguruko herriekin zein agintariek hainbat eztabaida izango zigtuen mendi, belaze, eta bestelako landa gune batzuen ustiapena zeini zegokion finkatzeko. Guztiek antzinako idatzi gabe zeuden ohiturak erabiltzen zituzten argumentu gisa. Eztabaida hauek behin betirako argitzeko saiakera egingo du Juan II erregeak³⁹ baina bere sententzia praktikan ez da beteko.

Liskar ugariren informazioa ematen digute agiriek, ondorioz sailkapeneko ondorengo atala hauen aipamen bat egitea izango da. Honetarako laburki Aguraingo egitura soziala erreparasatuko dugu. Alde batetik nekazariak zeuden, hauek beren asanblada zuten, bestetik jaunak zeuden, hauek Egiluzeko Hermandadean eta San Millaneko bilkuran biltzen ziren. Azken hauek behin eta berriz protesta egin zuten Agurain hiribilduraren botere politikoaren eta jurisdikzioaren aurka. Adibidez esaldi honetan argi ikus daiteke noble hauek duten ikuspuntua: *‘el conçejo de la dicha villa/ de Salvatierra contra nuestros privile/ -gios e franquetas e libertades e nuestros/ buenos usos e costumbres’*⁴⁰.

Bestetik, Aguraingo udalak bere boterea zalantzan jartzen duten edozeinen aurka egingo du. Horrela noble zein edozein herritarren aurkako hainbat auzi izango ditu. Xedea udalaren boterea indartzea izango da. Goicolearen hitzetan, prozesu honek udal fiskalitatean aldaketak ekarri zituen: “ (...) *logrando que les fueran reconocidos y confirmados importantes derechos en materia fiscal, económica y jurisdiccional a lo largo de los siglos XIV y XV*⁴¹”. Auzi hauen adibide ugari aurki ditzakegu agirietan⁴²

³⁸ GOICOLEA JULIÁN, F. J., op.cit.,II. Tomoa ,115-125 orr.

³⁹ Ibidem, 42-43 orr.

⁴⁰ GOICOLEA JULIÁN, F. J., op.cit.,III. Tomoa ,32 orr.

⁴¹ GOICOLEA JULIÁN, F. J., *La oligarquía de Salvatierra...*,op.cit,134 orr.

⁴² Nire iritziz guztietan esanguratsuen Sisaren gaineko zergaren inguruan edukitako gatazka da. Non azkenean erregeak hartzen duen parte. Ikus GOICOLEA JULIÁN, F. J., op.cit, III. Tomoa, 319-329 orr.

Liskarren atal hau bukatzeko, Ayala familiarekin edukitako arazoak aipatzea merezi du. Garcia de Ayala hil ostean, 1485. urtean, udalak ezohiko batzarra deitu zuen.⁴³ Aguraindarrak laster konturatu ziren agintari berri honek botere nahia zuela eta honetarako modu autoritarioan jokatu zuen besteak beste zerga erregimen oso gogor bat ezarriz.⁴⁴ Ondorioz Agurain hiribildua eta bere ordezkari zen Aguraingo udala Ayalatarren aurkako jarrera hartu zuen eta boteretik botatzeko saiakerei ekin. Horrela zergak ordaintzeari uko egin zioten eta tentsioak gora egiten jarraitu zuen. Horrela gatazka judicial baten sartzen dira, hasiera batean Ayalatarrek irabazten dituzte pleitu gehienak. Baina erregea Aguraingo herriaren aldeko sententzia desberdinak ematean egoera zeharo aldatzen da, horrela Ayalatarrek atzera egin beharra eduki zuten. 1525. urtean egoera berriz berotzen da, Pedro de ayalaren semeak, Atanasio de Ayalak, erregearen sententzien aurka egiten du. Biolentzia momentuak ere biziko ziren prozesu honetan zehar.⁴⁵

Hemen amaitzen da gai desberdinen azterketa hau. Berauen laguntzat Aguraingo historiaz zerbait gehiago ikasteko aukera izan dugula uste dut.

ONDORIOAK

Lana hau burutu ostean, ondorio eta azken gogoeten tartea hasiko da. Aguraingo udalak mendeetan barrena erabilgarritasuna galdu duten agiriak gorde ditu. Saiakera honek bere fruituak eman ditu eta egun oso udal artxibategi aberatsa da. Arrazoi honengatik eta kasualitatez, Erdi Aroko bertako agiri guztiak landuak izan dira. Agiri hauek Aguraingo eta inguruko historia berregiten lagundu digute eta honek herri honi buruzko bibliografia aberatsean izan du eragina. Euskal Herriko herri askorekin alderatuz, Aguraini liburu asko eskaini zaizkio.

Hala ere, lan handia dago oraindik egin gabe. Hutsune ugariak daude oraindik betetzeko. Adibide argienetako bat Gasteiz bera. Honen atzean dirua dago, ia beti bezala, eta zoritxarrez diru inbertitzaileek etekina atera nahi dute eta agirien argitalpen eta

⁴³ Ibidem 266-270 orr.

⁴⁴ GOICOLEA JULIÁN, F. J., *La oligarquía de Salviatierra...*, op.cit., 137 orr .

⁴⁵ POZUELO RODRIGUEZ, F., op.cit. , 633-636 orr.

azterketak ez du ia irabazirik erakartzen. Ondorioz, diru publikoa da bide bakarra. Honen alde txarrak krisi egoera batean lehenbizi murrizten duten lekua kultura da eta horren barruan historiako argitalpenak. Eusko Ikaskuntzaren *Colección de Fuentes Documentales* bilduma ere erdi bidean gelditzekotan dago, Araba eta Iparraldea ia landu gabe dituen oraindik.

Baina alor honetan lan asko egin dela ere esan beharra dugu. Eta hau zeharo txalogarria da. Francisco Javier Goicolea Julián, José Ramon Díaz de Durana eta Ernesto Pastor Díaz de Garayo azpimarratuko nituelarik.

Agiriek oso informazio aberatsa eskaini digute. Udalaren funtzionamendua, hiribilduko oligarkia osatzen zuten familien jarduerak, Koroarekin izandako harremana... Baina baditu hutsune nabarmenak ere; adibide adierazgarriena eliz agiriak lirateke. Bestetik, Erdi Aroko Akta libururik ez egotea ere oso adierazgarria da, bertan Udalaren funtzionamendu zehatza ezagutzeko aukera egongo baitzen,

BIBLIOGRAFIA

AYERBE IRÍBAR, M.R., IRIXOA CORTÉS I., LEMA PUEYO J.Á., SAN MIGUEL OSABA, A., *Documentación Medieval del Archivo municipal de Oiartzun. III (1320-1520)* Eusko Ikaskuntza (Colección de Fuentes Documentales Medievales del País Vasco, 148. liburukia), 2013, Donostia.

DÍAZ DE DURANA, J. R., *Álava en la Baja Edad Media a través de sus textos*, Eusko Ikaskuntza (Colección de Fuentes Documentales Medievales del País Vasco, 54. liburukia), Donostia, 1994.

FERNANDEZ DE LARREA ROJAS, J. A., “La llanada oriental en la Baja Edad Media: villa frontera y linajes”, in PASTOR DÍAZ DE GARAYO, E., (Koor) *Sortaldeko lautada historian zehar: gaurko tresnez baliatuz, joandako denborak argitu*, Arabako Foru Aldundia, Gasteiz, 2003, 53-60 orr.

GARCÍA DE CORTÁZAR, J.Á., MUNITA, J.A., FORTÚN, L.J., *Codiphis. Catálogo de colecciones diplomáticas hispano-lusas de época medieval*, Fundación Botín, 1999, Santander.

GOICOLEA JULIÁN, F. J., *Archivo Municipal de Salvatierra-Agurain 1401-1450*. Tomo II, Eusko Ikaskuntza (Colección de Fuentes Documentales Medievales del País Vasco, 83. liburukia), Donostia, 1998.

GOICOLEA JULIÁN, F. J., *Archivo Municipal de Salvatierra-Agurain 1451-1500*. Tomo III, Eusko Ikaskuntza, Eusko Ikaskuntza (Colección de Fuentes Documentales Medievales del País Vasco, 115. liburukia), Donostia, 2002.

GOICOLEA JULIÁN, F. J., *La oligarquía de Salvatierra en el tránsito de la Edad Media a la Edad Moderna*, Universidad de la Rioja, 2007, Logroño.

GOICOLEA JULIÁN, F.J., VILLANUEVA ELÍAS, E., LEMA PUEYO, J.Á., FERNÁNDEZ DE LARREA ROJAS, J.A., MUNITA LOINAZ, J.A., DÍAZ DE DURANA

ORTIZ DE URBINA, J.R., *Honra de hidalgos, yugo de labradores: Nuevos textos para el estudio de la sociedad rural alavesa (1332-1521)*, Euskal Herriko Unibertsitatea, 2005.

GRANDES, F., *Apuntes Históricos de Salvatierra*, Arabako Foru Aldundia, 1982, Gasteiz.

IÑURRIETA AMBROSIO, E., *Colección Diplomática del Archivo Municipal de Salvatierra 1256-1400*, Eusko Ikaskuntza (Colección de Fuentes Documentales Medievales del País Vasco, 18. liburukia), Donostia, 1989.

LANDÁZURI Y ROMARATE, J.J., *Obras Históricas sobre la Provincia de Álava*, Diputación Foral de Alava-Consejo de Cultura, Tomo I-II-III-IV, 1976, Gasteiz.

LEMA, J. A., FERNÁNDEZ DE LARREA, I. A., GARCÍA FERNÁNDEZ, E., MUNITA, J. A., DÍAZ DE DURANA, J.R., *Los señores de la guerra y de la tierra: Nuevos textos para el estudio de los parientes mayores guipuzcoanos (1265-1548)*, Diputación Foral de Gipuzkoa, Departamento de Cultura, Euskera, Juventud y Deportes (Iturriak / Gipuzkoako Artxibo Orokorra-Fuentes / Archivo General de Gipuzkoa, 2), 2000.

LEMA, J. Á., y MUNITA, J. A., “Nuevos documentos y nuevos tratamientos de las fuentes para el estudio de la lucha de bandos en Gipuzkoa”; in DÍAZ DE DURANA, J. R. (arg.): *La Lucha de Bandos en el País Vasco: De los Parientes Mayores a la Hidalguía Universal (siglos XIV a XVI)*; Servicio Editorial de la Universidad del País Vasco, 1998, Bilbo, 47-96 orr.

MARTÍNEZ DIEZ, G., *Alava Medieval*, Tomo 2, Diputación Foral de Alava, Gasteiz, 1974

PASTOR DÍAZ DE GARAYO, E., *Salvatierra y la Llanada Oriental alavesa (Siglos XIII-XV)*, Azterlanak-Investigaciones de hoy, Arabako Foru Aldundia, 1986, Gasteiz.

POZUELO RODRIGUEZ, F., *Archivo Municipal de Salvatierra-Agurain. Tomo IV (1501-1521). Apéndice 1259-1469*, Eusko Ikaskuntza (Colección de Fuentes Documentales Medievales del País Vasco, 141. liburukia), Donostia, 2010

RAMOS REMEDIOS,E., *El apeo de Vitoria y su jurisdicción a fines del siglo XV*, 1. Liburukia, Gasteizko Udala, 1999, Gasteiz.

RAMOS REMEDIOS,E., *El apeo de Vitoria y su jurisdicción a fines del siglo XV*, 2. Liburukia, Gasteizko Udala, 1999, Gasteiz.

VILLIMER LLAMAZARES,S., *Documenta alavae latina*, I liburukia, Arabako Diputazioko Kultura Saila, 1977, Gasteiz.

VILLIMER LLAMAZARES,S., *Documenta alavae latina*, II liburukia, Arabako Diputazioko Kultura Saila, 1984, Gasteiz.